

MARIBEL ILUNDAIN

Burlata, Barañain, Antsoain, tasmoa gauzatuta, hemendik aurrerako lana nolako izango duten eta 25.000 inguru emakumeen arazoei aurre egiteko sortu den zerbitzuaz mintzatu gara Maribel Ilundain arduradunarekin.

«Askotan bakardadea aurkitu ohi dugu emakume helduengan»

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA —Nola erabaki zen emakumeentzako zerbitzu hau eta nola dago osatua?

MARIBEL ILUNDAIN —Asmoa Burlatako alkatearengandik sortu zen, eta nik osatu nuen proiektua. Iazko martxoaren 8an paratu genuen martxan eta badaude bi zerbitzu, nolabait esateko. Bata, argibideak emateko eta orientatzeko, eta bestea laguntza juridikoa eskaintzeko. Honetaz aparte badago aterpe bat arazoak dituzten emakumeak jasotzeko. Egin beharreko lehendabiziko lana argibideak ematea da beti, eta gero, laguntza juridikoa behar izanez gero, beti gertatzen ez dena, asesoria juridikora pasatzen da.

EGUNKARIA —Aurkitzen dituzuen arazo larrienak nolakoak izaten dira?

ILUNDAIN —Batez ere, senarra uzteko eskariak jasotzen ditugu, eta baita etxebizitza eta lana lortzekoak ere. Horretaz aparte, guk kurtsiloak antolatzen ditugu, emakumeak bere etxeetatik ateratzeko...

EGUNKARIA —Benetan hor al dago arazoa, etxeetan?

ILUNDAIN —Guk emakumea bere giroan gustora egotea lortu nahi dugu, hau da, bere familiarekin. Baina horretarako arazoa birplan-teatu behar dugu, aterabideak bilatu behar dizkiogu, askotan bakardadearekin egiten bait dugu hori, eta bakardadeak eragin handia du beste gauza guztietan. Hori ekiditeko taldeak osatzen ditugu, emakume guztien artean, elkarri eusteko. Eta horrela lortzen da guk ere ezin duguna, elkar ulertzea eta elkar laguntzea. Badaude bere bi-



Ilundain izango da Emakumeentzako Zerbitzu honen arduradun. JOXE

zita osoa etxean eman duten emakume asko. Berrogei urte inguru hori dutenak, seme-alabarik gabe gelditu direnak, eta emakumeak

«Emakumeak gizartearen mugitu nahi badu bere familia mugitu behar du lehendabiziki. Etxe barruko hori du bere lehendabiziko borroka».

bakarrik sentitzen dira: 'kabi hutsa' izeneko sindromea. Orduan, nere ustez, kultura eta aisi tarte berrien eskutik etorri behar dute konponbideek. Gainera, emakumeentzat oso beharrezkoa da gizartearen parte sentitzea, eta parte har-

tzea. Horregatik bultzatu nahi ditugu emakume taldeak eta haien arteko elkarkidetasuna.

EGUNKARIA —Eta hori nola hartzen dute familiek?

ILUNDAIN —Denetarik dago. Hasieran zaila da, eroso bait da langile bat etxean izatea, baina gero konturatzen dira aberasgarria dela familiarentzat, eta pertsona berarentzat, emakumeak autonomo bilakatzen bait dira, familiarekiko harreman hori bere bizitzaren zio bakarra izan gabe. Hau garrantzizkoa da, emakumearen lehendabiziko borroka familian bait dago. Emakume bat ateratzen hasten denean, badaude etxean gelditzea nahi duten senargai asko, etxeko lanak banatzen bait dira, eta hori, jakina, nekoso da.

SOSLAIA

Laguntza behar handia

Burlata, Barañain, Antsoain, Atarrabia eta Uharteko gehiengoak pozik hartu du Emakumeentzako Zerbitzu berri hau zabaltzea. Aurretik izandako beste esperientzia batzuk beti erakutsi dute horrelakoen premia handia dela, eta Iruñerrian bertan, Iruñean 1984ean zabaldu zenak nolako harrera izan zuen ikusi besterik ez dago. Udaleko arduradun eta Emakumeen Elkartearen arteko gorabeherak, eta Iruñeko Udalak luzatzen zion gero eta laguntza urriagoak itxierazi zuten arte, 5.000tik gora emakumeri lagundu zien bost urte eskaxetan. Aterpe etxeak berriz 400 emakume hartu ditu urte horietan.



Maribel Ilundain.

JOXE

Arabako elkarteentzako laguntzak % 10 gehituko ditu Foru Aldundiak

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ



Arabako Foru Aldundiak herrialdeko eelkardeen artean banatuko dituen dirulaguntzak hamasei milioitako (800.000 libera) pezeta kopurura iritsiko dira aurtun, Jesus Loza Ongizate diputatuak atzo iragarri zuen bezala. «Lazkoekin gonbaratuta, % 10eko gehikuntza izan dute, gehien bat elbarrituen arloa, marginazioa eta zahartzarora jorratzen dituzten hainbat erakunderen aktibitatekoak nahiz azpiegitura edo ekipamendurakoak izanez».

Aurtengo programa aurkeztean Lozak agertu zuen erizpidea herri-zonaldeko eskakizunei lehentasuna ematearena izan zen. «Momentuko programak baino, orokorrak izango dira lehenbizi gogoan izango ditugunak», adierazi zuen. Lozak esan zuenez, «Arabako Diputazioa aspektu honetan eredugarri izan arren», elkarte ez gubernamentale-

kin, erakunde mugimeduarekin eta bestelakoekin, «elkartasun eza uxatzeko lehian elkarren ondoan aritzeko beharra daukagu instituzioetan, elkarteek aintz gaitan zeresan zein ezagutza handia dute eta».

Joan zen urtean zehar Diputazioak luzatu zizkien dirulaguntzen birpajaketa egin zuen Lozak, 1987tik sailleko aurrekontua % 50a baino gehiago igo dutela gaineratuz. «Erakundeen sorrera erraztu dugu gainera politika honi esker eta urte hartatik hona kopurua bikoitza pasatxo izatea lortu da». Azkenaldiko joera kome-nio orokorrak sinatzea izan dela aipatu zuen, «Laudioko Udalarri muga arkitektonikoak ezabatzeko eta zaharren klub baterako dirulaguntzak eta sexuen arteko ezberdintasunen aurkakoak ahaztu gabe». Azkenik, mugimendu asoziatiboak «instituzioen kudeaketa kontrolatzen jarraitzea» espero zuela jakin arazi zuen.

Ezbeharrak

PORTUGALETEN, pertsona bat hil zen bere autoak azpian hartu zenean. Astelehenean gertatutako istripuan hildakoa, berrogeitabi urteko F.S.R., Portugaletekoa zen. Arratsaldeko 19.30etan, SOS deiak jasotako dei baten bidez, gizona bat bere autoan zarpaturik zegoela jakin zuten. General Castaños kaleko garaje batera zijoan. Polea bat jasotzeko aldamia hautsi eta gainean erori zitzaion, autoa airean zuen momentuan, Udaltzaingoak aditza eman zenez.

DONOSTIAN frantziar bat lehen solairu batetik erori zen atzo. Juan de Bilbao kalean goizeko 08.15etan gertatu zen ezbeharraren arrazoiak

ez dira ezagutzen eta Gurutze Gorriko eritexera eraman zuten larriki zauriturik.

DONOSTIAKO Bazkardo bidegurutzean zauritu bat izan zen atzo. Hogeitabi urteko J.J.U, SS-6603-T matrikuladun autoa zeraman Andoaingo gaztea Donostiako Gurutze Gorriko eritexean sartu zuten.

ERMUAN izandako istripu batean zauritu bat izan zen atzo. BI-6072-S matrikuladun kamioia eta BI-2504-AX matrikuladun autoak elkar jo zuten eta ondorioz, hogeitahiru urteko J.F.I., Ermukoa zaurituta gertatu zen. J.F.I. Galdakaoko eritexera eraman zuten Gurutze Gorriak aditza eman zenez.

Egunkaria

KAZETARIENTZAT LAN ESKAINTZA

EGUNKARIAK bete beharreko kazetari postuetarako baldintza hauetako bat eskatuko da:

- Kazetaritza Fakultatean 3. mailatik aurrera aritzea
- Unibertsital mailako karreraren bat amaitua izatea
- Komunikabideren batean hiru urtez aritua izatea

Lasarteko egoitzarako hartuko diren kazetarien frogan, euskara maila, kazetaritzaren ezagutza eta esperientzia ere baloratuko dira, burutu beharreko frogaz gain.

Izena emateko deitu 943/37 15 45 telefonora otsailaren 15a baino lehen.